

GIZA TALDEA

Langileen hautaketa eta promozioa

Hautaketa eta promozio prozesuen bitartez langile egokienak erakundeak sortutako lanpostuetan aritzea nahi dugu, gaitasun profesional eta pertsonalaren printzipioak errespetatuz, eta halaber aukera berdintasuna eta kanpo zein barne arauen exigentziak.

Enpresako pertsona guzti-guztiek daukate aukera garapen profesional handiago eta erantzukizun berriak dakartzaten beste lanpostu batzuetan aritzeko, betetzeko lanpostuak enpresak kontratatutako langileei eskaintzen baitzaizkie lehen. Lanpostua barneko jendearekin ez bada betetzen, edo betebeharrak betetzen dituen jenderik ez badago, eskaintza kanpora zabaltzen da.

2009. urtean 13 hautaketa prozesu egin dira, eta haietarik 7 barne deialdiak izan dira eta 6 kanpokoak. Prozesu hauen bidez, 762 hautagai aurkeztuta, denak hartu dira kontuan 30 lanpostu betetzeko.

LANGILEEN HAUTAKETA ETA PROMOZIOAREN ADIERAZLEAK

	2006	2007	2008	2009
% barne promoziozko prozesuak, hautaketa prozesu guztiei erreparatuta	66,7	65,6	42,86	53,85
% promozionatutako langileak, hautatutako langile guztiei erreparatuta	67,5	75,0	58,33	66,67
% promozionatutako langileak, langile kopuruaren batez bestekoari erreparatuta	5,5	7,1	1,4	1,65